ANGELUKO IKASLEAK
OSOGUNEKO ERAKASKERA
2000-2001 IKHAS URTHEA

# HIRUGARREN ERAKASPENA. 5/

## (I) ELHEKETA – ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1. Zertako jendeak zoazin zalukara beren bizitokietarat?
2. Zerek izitzen zuen jendea eta alimalea? Emazue adibide bat.
3. Orduan jenden eta alimalen izidura hori berdinkatzen ahal zena itxes bat? Eman adibideak.

## (II) PIARRES 3 ELIZAKO Bestak

Lasterra ezin aski zalu eginez, etxerat, bordalderat, heiarat bazoazin jendeak, alimaleak; ixilik jendeak, marrumaz alimaleak, oro harrituak. Xoriak, hek, aspaldi ixilduak ziren, arbola ziloetan, berro[2] zokoetan kukutuak, ez-deustuak ere!

Lanhoak heldu ziren anhartean, bethi'ta izigarriago, ortzi-karrasken erdian. Arbolak lurreraino kurtu ziren, ile handi batzu bezala beren adarrak alde guzietara xixtuka luzatuz... Athe leihoak zapartakan abiatu ziren etxe guzietan, asko pareta zahar urratu, teilak airez-aire hegaldatu, eta... hedoia lehertu zen herriaren gainera...

• • •

Itsasoa erranen zinuen orai etxe bakotxaren inguruan; harramantza itsusienak, orroa guziak han elgarretaratuak... Arratsalde erditan gau ilhuna, dorphea,[3] zinez izigarria; ximixta hori eta gorriak ilhunbearen argitzaile.

*Adarra* lehertu baino lehen elizara lasterrez joanak, emazteki zonbeit, arrosarioak eskuan, othoitzean ari ziren, ikaretan. Laguntza bat zitzaioten aldare aintzineko argiak berak iduri zuen, hiltzera zoala hura ere. Lur-ikare batean bezala, daldara ilhun batekin, ikaratzen ziren eliza zahar zahar hartako paretak, eta, han, ezkiladorrean, ezkilak intzireka abiatu ziren.

## 33_IZAN_Régime Indirect Imparfait

(Hura) zen = il était – Singulier

Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était
—"— zitzaizun (à vous) = il vous était
—"— zitzaion (à lui) = il lui était
—"— zitzaigun (à nous) = il nous était
—"— zitzaizuen (à vous) = il vous était
—"— zitzaien (à eux) = il leur était

(Hek) ziren = ils étaient – Pluriel

Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient
—"— zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
—"— zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
—"— zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
—"— zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient
—"— zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

## (III) ADITZ IKASKUNTZA-

31_Heiarat bazoazin 32_Zaia hori doakio
33_Laguntza bat zitzaioten 34. zitzaizkioten
35 jin zintzaizkitan 36 joan zintzaizkidaten

## 31 JOAN = ALLER. Indicatif.

| Présent | Imparfait |
| --- | --- |
| Ni noa = je vais | N. nindoan = j'allais |
| Hi hoa = tu vas | H. hindoan = tu allais |
| Zu zoatzi = vs allez | Z. zinoatzin = vs alliez |
| Hura doa = il va | H. zoan = il allait |
| Gu goatzi = ns allons | G. ginoatzin = ns allions |
| Zuek zoazte = vs allez | Z. zinoazten = vs alliez |
| Hek doatzi = ils vont | H. zoatzin = ils allaient |

## 32_JOAN_Régime Indirect Présent Singulier

Hura doa = il va

Hura (lui) doakit = il me va
" doakizu = il vous va
" doakio = il lui va
" doakigu = il nous va
" doakizue = il vous va
" doakie = il leur va

Hek doatzi = ils vont Pluriel

Hek = (eux) doazkit = ils me vont
" doazkizu = ils vous vont
" doazkio = ils lui vont
" doazkigu = ils nous vont
" doazkizue = ils vous vont
" doazkie = ils leur vont